

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

1.765 langabe gutxiago izan dira ekainean Nafarroan, eta orain 42.911 pertsona daude lanik gabe

Aurreko hilabetearekin alderatuz % 3,95 jaitsi da, eta 2014ko ekainaren aldean, 4.196 langabe gutxiago dago (% 8,91)

Jueves, 02 de julio de 2015

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Agentzietan 42.911 pertsona erregistratu dira iragan ekainean, hau da, aurreko hilean baino 1.765 pertsona gutxiago (-% 3,95); hil horretan, 44.676 langabe izan ziren. 2014ko ekainaren aldean, 4.196 langabe gutxiago dago, -% 8,91 balio erlatiboetan.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko jarduneko zuzendari-kudeatzaile Imelda Loreak azpimarratu duenez, "langabezia 2011. urtera arteko mailara jaitsi da, Nafarroak jasandako bigarren atzeraldiagatik sortutako langabezia-poltsa desagertuz".

Urtebetean 4.000 langabe gutxiago izatea baloratzeaz gain, NEZko zuzendari-kudeatzaileak kontratazio-datuak azpimarratu ditu; 2014ko ekainaren aldean, % 19 igo da.

Enplegu-agentzien arabera, langabeziak ia guztietan egin du behera: Doneztebe (-% 8,81), Altsasu (-% 8,12), Tafalla (-% 6,05), Iruña-Zabalgunea (-% 4,59), Iruña-Yamaguchi (-% 4,46), Lizarra (-% 3,87), Iruña-Arrotxapea (-% 3,44) eta Tuteran (-% 2,59). Lodosan 86 langabe gehiago izan da, hau da, % 6ko igoera erlatiboa.

Jarduera ekonomikoaren arabera, honako sektore hauetan izandako langabeziaren beherakada nabarmendu behar da: Administrazio Publikoa (-234 pertsona), txikizkako merkataritza (-198), enpleguari lotutako jarduerak (-173) eta janari nahiz edarien zerbitzuak (-163). Igoera aipagarrienak elikaduraren industrian (153 pertsona) eta nekazaritza-sektorean (29) gertatu dira.

Sexuaren arabera, 23.896 emakume daude lanik gabe (% 2,83 jaitsi da), eta 19.015 gizon (% 5,32 jaitsi da), aurreko hilabetearekin alderatuz.

Adinaren arabera, 4.063 langabe daude 25 urtetik behera (% 9,85



1.765 langabe gutxiago dago; ekainean 42.911 pertsona izan dira lanik gabe.

jaitsi da), eta 38.848 25 urtetik gora (% 3,29 jaitsi da), aurreko hilabetearekin alderatuz.

Kontratazioa

2015eko ekainean 32.433 kontratu erregistratu ziren Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, hau da, aurreko hilean baino 6.132 kontratu gehiago. Erregistratutako kontratuetatik, 1.457 mugagabeak izan ziren, hots, erregistratutako kontratu guztien % 4,49. 2014ko ekainarekin alderatuz, kontratuen kopuruak % 18,79 egin du gora.

Sexuaren arabera, 15.789 gizonek (2015eko maiatzean baino 2.861 gehiago) eta 16.644 emakumek (3.271 gehiago) kontratu bat sinatu zuten. Adin-taldeen arabera, contratazioa honako era honetan banatu da: 25 urtetik behera erregistratutako 6.222 kontratu (iragan hilean baino 2.392 gehiago); 25 eta 44 urte arteko langileek sinatutako 18.684 kontratu (maiatzean baino 2.689 gehiago), eta 45 urtetik gorako pertsonak sinatutako 7.527 kontratu (1.051 contratazio gehiago).

Jarduera-sektoreen arabera, 21.467 pertsonak zerbitzuen-sektorean egin zuten (maiatzean baino 4.402 gehiago), 9.018k industrian (maiatzean baino 1.896 gehiago), 936k eraikuntzan (maiatzean baino 89 gehiago) eta 1.012k nekazaritzan (aurreko hilean baino 255 kontratu gutxiago).